

**TESTAMENTU MANKOMUNATUAK EUSKAL LURRALDEETAN.
EZEZTATZEKO ETA ALDATZEKO ERREGELAK, EUSKAL ZUZENBIDE
ZIBILARI BURUZKO LEGEAN**



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

ZUZENBIDE FAKULTATEA

BIZKAIA

Lanaren egilea: Ander Akarregi Amutxastegi

Zuzendaria: Irantzu Berian Flores

Kurtsoa: 2023/2024

LABURPENA

Testamentu mankomunatuak historia handiko figurak dira Euskal Zuzenbide Zibilean. Ekainaren 25eko 5/2015 Legeak, besteak beste, testamentu mankomunatuaren unifikazioa ekarri du Lurralde Historikoetan. Hala ere, ezarri dira, doktrinalki eztabaidak sortu dituzten arau batzuk. Autore batzuen arabera, EZZL-ren 27.3. art.-a eta 28.3.art.-a kritikagarriak dira. Lanaren helburua artikuluko horiek aztertzea eta interpretatzea izango da, eta beste erregimen foraletan halakorik dagoen ikusi.

RESUMEN

Los testamentos mancomunados son figuras que han tenido mucha historia en el Derecho Civil Vasco. La Ley 5/2015, de 25 de junio, ha supuesto, entre otros cambios, la unificación de los testamentos mancomunados en los Territorios Históricos. Sin embargo, se han establecido algunas normas doctrinalmente controvertidas. Según algunos autores, son criticables los artículos 27.3 y 28.3 LDCV. El objetivo del trabajo será analizar estos artículos, comprobando si existen en otros regímenes forales, y también, tratando de buscar sentido a las posibles incongruencias que se derivan de sus redacciones.

AURKIBIDEA

LABURPENA.....	1
AURKIBIDEA	2
1. LABURDURAK.....	4
2. SARRERA	5
3. TESTAMENTU MANKOMUNATUAK. KONTZEPTUA ETA AURREKARIAK...6	
3.1. KONTZEPTUA	6
3.2. AURREKARIAK	9
3.2.1. Aurrekari historikoak. Aurrekariak Gaztelan eta zuzenbide Foraletan.9	
3.2.2. Aurrekariak Euskal lurraldean. Euskal Zuzenbide Zibila.....12	
3.2.2.3. Kode Zibilaren debekua. Zuzenbide Komuna.....16	
4. EUSKAL ZUZENBIDE ZIBILAREN APLIKAZIO EREMUA.....17	
4.1. UZTAILAREN 1eko 3/1992 LEGEA ETA AZAROAREN 26ko 3/1999 LEGEA.17	
4.2. 5/2015 LEGEAREN LURRALDE APLIKAZIO EREMUA	18
4.3. 5/2015 LEGEAREN APLIKAZIO EREMU SUBJEKTIBOA. AUZOTARTASUN ZIBILA.18	
5. TESTAMENTU MANKOMUNATUEN EZEZTATZE ETA ALDAKETA UNILATERALAK EZZL-REN ARABERA. BESTE ZUZENBIDE FORALEKIN KONPARAKETA.....20	
5.1. EUSKAL ZUZENBIDE ZIBILAREN ARABERA	21
5.1.1. Euskal Zuzenbide zibilaren 5/2015 Legea.21	
5.1.2. 5/2015 Legearen aurretik. Konparaketa.....24	
5.2. TESTAMENTU MANKOMUNATUEN EZEZTATZE ETA ALDAKETA UNILATERALAK ESTATUKO BESTE ZUZENBIDE FORALETAN. ANTZEKOTASUNAK ETA DESBERDINTASUNAK.....27	
5.2.1 Aragoi	27
5.2.2. Galizia.....29	

5.2.3. Nafarroa	30
5.2.4. Alemaniako araudiari aipamena	31
5.3. DOKTRINA. EZZL-KO 27.3. ETA 28.3. ARTIKULUEN ARAZOAK.	32
5.3.1. 27.3. Artkiluari buruz	32
5.3.2. 28.3. Artikuluari buruz.....	34
6. ONDORIOAK.....	37
7. BIBLIOGRAFIA.....	39

1.LABURDURAK

Hauek dira lanean zehar erabiliko diren laburdurak:

- KZ: Kode zibila
- EZZL: Euskal Zuzenbide Zibilaren Legea
- AZZK: Aragoiko Zuzenbide Zibilaren Kodea
- EAE: Euskal Autonomia Erkidegoa

2. SARRERA

Testamentu mankomunatuaren munduan sartuta, Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko 5/2015 Legeak ekarri zituen araudi berriak aztertzeke da lana. Lehenengo, eta kontzeptua argitu ostean, testamentu mankomunatuaren historia aztertuko da (gainetik bada ere). Hala, Espainiar estatuan dauden araudi desberdinak aztertuko dira; Kode zibilak aurreikusten duen figura hau, eta baita beste zuzenbide foraletan. Aipagarria da, Lege horrek Lurralde Historikoen artean zeuden araudi desberdinen arteko unifikazioa ekarri zuela, eta, araudi desberdinak uztartu zirela.

Kokapenaren zatia finkatuta, lanaren mamian sartuko gara. Izan ere, lanaren helburu nagusia da testamentuaren errelokazio eta aldaketei dagozkien araudiak aztertzea (27.3. eta 28.3. EZZL) Aurrekoarekin bat, testamentu mankomunatuak arautzen dituzten beste araudi foraletako errelokazio eta aldaketa erregelak aztertuko ditugu

Horien ostean, egindako lanari dagozkion ondorioak egingo ditut, lanean aztertutakoari buruz hausnartzeko asmoz.

Gaia aukeratu izanaren arrazoia da Euskal Zuzenbide Zibilaren 5/2015 Legea ezagutzea, eta azken finean, gurea den zuzenbide zibilaren historia, eta egun daukagun egoera ulertzea.

Metodologiari dagokionez, exegetikoa eta doktrinala den hori erabiliko da. Hau da, iturri desberdinak aukeratuko ditut, horietatik informazioa hautatu, eta nire lanean hautatutako horiek batuko ditut. Hala, testamentu mankomunatuari buruzko hainbat erreferentzia bibliografiko agertuko dira lanean zehar.

3. TESTAMENTU MANKOMUNATUAK.

KONTZEPTUA ETA AURREKARIAK.

3.1. KONTZEPTUA

Mortis causa oinordetzan kokatzen gara. Kode zibilak (hemendik aurrera KZ) 661. artikuluan ezartzen duenaren harira, *mortis causa* oinordetza ematen da kausatzaileak hiltzen denean uzten dituen ondasun, eskubide eta betebeharrak eskualdagarrietan oinordekoa subrogatzen denean. Horrez gain, Kode zibileko 662. artikulua dio, ordenamendu juridikoaren arabera gaitasuna duen edonork antola dezakeela bere erlazio juridikoen xedea eta helburua, hiltzen denerako. Hau da, kausatzaileak, bere borondatez bere oinordetza antolatu dezakeela adierazten da. Borondatezko *mortis causa* oinordetzan kokatzen gara, beraz.

Gaia borondatezko *mortis causa* oinordetzan kokatuta, hartarako erabiltzen den instrumentu printzipala den testamentuari heldu behar diogu; -KZ-ak borondatezko oinordetza burutzeko aurreikusten duen tresna bakarra da hori¹. Testamentua kausatzaileak oinordetza antolatzeko erabiltzen duen aldebakarreko negozio juridiko gisa definitzen du Kodea Zibilak 667. artikuluan. Hauek dira Kode Zibilak definitzen duen testamentu kontzeptuaren ezaugarri nagusiak: kausatzailea hiltzen denean izango da efikaza; testatzaileak unilateralki burutu behar du (testamentu mancomunatua espresuki debekatzen da); txit pertsonala dela kontsideratzen da, hau da, ezin daiteke testamentua burutzeko ahala delegatu; zenbait formaltasun bete beharko ditu eta errelokagarria da².

¹ Oinordetza-ituak edo kontratuak dira borondatezko *mortis causa* oinordetza gauzatzeko beste instrumentua. Kode Zibilak debekatu egiten du 667. Artikuluan zuzenbide komunaren esparruan, baina estatuko zenbait autonomiatan indarrean dauden ordenamendu batzuek onartu eta arautu egiten dute, hala nola EAEn EZZL-ren 100.Art.-an.

² BARRUETABEÑA ZENEKORTA, Maite. (2010). *El testamento mancomunado o de hermandad en el derecho civil del País Vasco* (Tesi doktoral). Euskal Herriko Unibertsitatea. Donostia. 118-119. Orr.

Testamentuen kontzeptua finkatuta, Euskal zuzenbide zibilari buruzko ekainaren 25eko 5/2015 legeko (Euskal Zuzenbide Zibilaren legea, -hemendik aurrera EZZL-) 24.1. artikulua arabera, pertsona bik instrumentu berean egiten dituzten hil osteko ondasunen xedapenak (testamentu mankomunatuak) dira: “1.– *Mankomunatutzat joko da testamentua baldin eta bi pertsonak, bizikidetzan edo senidetasun-harremana eduki edo ez, beren heriotza ondorako beren ondasun guztiak edo haietako batzuk tresna bakar batean xedatzen badituzte.*

EZZL-ak emandako testamentu mankomunatuaren definizioari erreparatuz gero, hil ondorengo xedapen unilateralen aurrean, testamentu baten egile diren subjektuak bi izatea ahalbidetzen da, beraz. Izan ere, testamentu mankomunatuak, azken finean testamentuak diren arren, zuzenbide komunak aurreikusten duen kontzeptutik aldentzen dituzten zenbait ezaugarri dauzkate.

Betekizun formalei dagokienez, esan bezala, garrantzitsua da pertsona bik³ egiten dutela eta pluripersonala den testamentua bihurtzen dela⁴. Horrez gain, egintza batasuna eskatzen da, hau da, hil osteko xedapenak instrumentu bakar batean islatzea.

Baina testamentu mankomunatuari buruz hitz egiten dugunean, ezinbestez plazaratu beharreko auzi bati heldu behar zaio, hala nola: testamentu horietan kausatzaileen xedapenek haien arteko erlazioa izan behar al dute, testamentua mankomunatu gisa kontsideratzeko?

Doktrina mailan eztabaidak eta iritzi ezberdinak sortu izan dituen auzia da hori. Alde batetik autore batzuek ez dute uste betekizun material hori ezinbestekoa denik. Eta hala ezarri zuen 1984-an Auzitegi Gorenak emandako sententzia batek (Auzitegi Goreneko 1984ko otsailaren 13ko sententzia), instrumentu batasunari lehentasuna emanaz batasun

³ Aurrerago aipatuko da, nola beste zuzenbide foral batzuetan pertsona bi edo gehiagok egin dezaketen egintza den. MONFIL GARÍN Esther. (2017). *El testamento mancomunado en los derechos forales de España* (Gradu Amaierako Lana). Zaragozako Unibertsitatea. 4-5 orr.

⁴ López Suárez M.A. (2002). *El testamento mancomunado en la ley de derecho civil de Galicia*. (Doktorego tesia). Coruñako unibertsitatea. 55.or.

materialaren aurrean⁵. Baina beste batzuek berriz, ezinbesteko garrantzia eman izan diote kausatzaileen xedapenen arteko erlazioari⁶.

Badirudi EZZL-ko 25. art-ak betekizun formalari eman diola garrantzia, testamentu mankomunatuaren edukiari buruz zera dionean: “*Amankomunean egiletsitako testamentuak bata bestearentzako liberaltasunak jaso ditzake edo ez, horiek bakarrik edo hirugarren baten aldeko xedapenekin batera*” eta “*elkarren mendekotzat (korrespektibo) joko dira testamentugilekidearen xedapenetan izate arrazoia dutenak (...) Elkar mendekotasuna ez da presumitzen (...)*”. Beraz, testamentu mankomunatuetan testamentugilekideen artean lotura duten xedapenak egon daitezkeen arren, irizpide material hori ez da testamentu mankomunatu baten baldintza eratzaile gisa konfiguratzeko.

Azkenik, horrela arautzen ditu EZZL-ko 24.artikuluak testamentu mankomunatuari dagozkien baldintzak edo betekizunak : “*3.– Euskal auzotasun zibila daukatenean amankomunean egin dezakete testamentua Autonomia Erkidego honetatik kanpo ere. 4.– Testamentu mankomunatu egin ahal izango dute ere, beren autonomia-erkidegoaren barruan edo kanpoan, beste kausatzaile batekin elkartuta, baldin eta hari bere lege pertsonalak ez badio debekatzen amankomunean egitea. 5.– Ermandadeko testamentua baliozkoa izan dadin, testamentugile biak emantzipatuta egon behar dira hura egilesteko*

⁵ López Suárez M.A, bertan, 59.or. Autoreak erreferentzia egiten dio COCA PAYERAS, M.-k “Comentarios a la sentencia de 13 de febrero de 1984”. 1355-1363 orr.-etan egindako analisiari. Azken autore horren arabera testamentu mankomunatu kontsidera daitezke kausatzaileen nahien arteko erlaziorik ez daukaten testamentuak ere. GIL RODRIGUEZ, Jacintok, *Manual de Derecho Civil vasco*. (Atelier), 2015, 324.

⁶ BARRUETABEÑA ZENEKORTA, Maite. *El testamento mancomunado...* cit. 127. or. aipatzen ditu ildo beretik doazen CELAYA IBARRA, Adrián: “Comentarios al Código Civil y Compilaciones Forales, dirigidos por Manuel Albadalejo y Silvia Díaz Alabart, tomo XXVI, Ley sobre el Derecho Civil Foral del País Vasco”. Edersa. 203. Or. eta SALINAS QUIJADA, Francisco: *Derecho Civil de Navarra, Tomo VI, Vol. 1º*, Edit. Gómez, Pamplona, 1976. 322. Or, non azken honek hala adierazten duen: “*sino que la cualidad diferencial más importante estriba en la configuración de una disposición mortis causa en la que la institución de cada uno de los testadores se halla condicionada a las instituciones de los otros cotestadores*”.

unean. 6.– Testamentu mankomunatuak **forma irekia** baino ezingo du eduki, eta beti ere **notarioaren aurrean** egiletsi beharko da”.

3.2. AURREKARIAK

3.2.1. Aurrekari historikoak. Aurrekariak Gaztelan eta zuzenbide Foraletan.

Testamentu mankomunatuaren aurrekari historikoen azterketek, ez dute, zehazki behintzat, figura horren erro edo iturburu konkretuen adostasunik ezarri. Zuzenbide Erromatarretik hasita, eta Gaztelako Zuzenbide komunera bitartean, halako testamentu kontsidera litezkeen egintzak agertu badira ere, askotan oinordetza-itun edo bizidunari emandako itun kontsideratu izan dira horiek.

Aurrekari historikoak osotasunean barneratzeko, Zuzenbide Erromatarra jo behar dugu lehenengo. Izan ere, jakina da oso, garai hartan ezarri zela egun oinordetza zuzenbide gisa ezagutzen duguna. Beraz, testamentua ere asmakizun erromatarra izan zen. Garai hartan, testamentua pertsona bakarrak azken borondatez egin beharreko egintza irmo gisa kontsideratzen zen. Zehazki, txit pertsonala eta unilaterala zen egintza juridikoa zen, non “gens”-aren jarraipena ziurtatzeko semerik aiposenak “*sui iuris*” oinordeko gisa izendatzen ziren⁷.

Erromatar garaian, hala ere, eman ziren orain aztertzen ari garen figuraren isla txikiak⁸. Horien artean aipagarrienak dira 290. urteko DIOCLECIANO eta MAXIMIANO-ren

⁷ SUÁREZ ANTUÑA, Carlos Maria, *La sucesión testamentaria en tiempo de pandemia. Bases Romanistas, análisis del artículo 701 del Código Civil y su viabilidad normativa a efectos presentes*, Oviedoko Unibertsitatea, 2022, 230.or

⁸ BARRUETABEÑA ZENEKORTA, Maitek, *El testamento mancomunado o de hermandad en el derecho civil del País Vasco*, Tirant Lo Blanch, 2013, 27-28.orr ezartzen duen bezala, testamentu mankomunatuaren lehen aitzindariak zuzenbide erromatarrean ezartzen dituzten autoreak dira: TEXEIRA GRACIANETA, Antonio, El testamento mancomunado aragonés, Anuario de Derecho Aragonés, XII tomoa, 1963-1964, Zaragoza, 22.orr; CUADRADO IGLESIAS, Manuel, *El testamento mancomunado en el ordenamiento jurídico español después de la Ley de 24 de diciembre de 1981*, Revista de Derecho Privado, 1983, p. 1092; RIVAS

Erreskripto bat (anaia militar biren artean elkarrekiko oinordeko ezartzen ziren egintza), eta VALENTINIANO III-k 446. urtean semerik gabeko senar-emazteei elkarren arteko oinordeko ezartzea ahalbidetu zien tresna bakarra.

Zuzenbide Bisigodoan ere testamentu mankomunatuaren aitzindariak (nahiz eta testamentu mankomunatuak onartzen ez ziren) gauzatu ziren. Zuzenbide Erromatarrean testamentuen figura ulertzeko ezinbestekoak ziren printzipioen bazterketa eman zen. Formalitateen eskaera jaitsi zen erabat. Adibidez, senar-emazteek oinordetzak baliabide bakarrean ezartzea ahalbidetu zen, nahiz eta horiek testamentu mankomunatu kontsidera ezin.

Hala, ezin esan erromatarrek zein bisigodoek testamentu mankomunatuaren isla izan zitekeen figurarik zerabiltenik (ez literalki, behintzat), kontutan izanda, esan bezala, ezinbestekoa zela pertsona bakarrak haren borondatea ezartzea⁹. Hori defendatzen dutenek, oinordetza itunak direla diote (hau da, hil osterako ondasunen xedapenak ezartzen zituzten pertsona biren arteko kontratuak –printzipioz aldaezinak- eta ez aldebakarreko hil osterako egintzak)¹⁰.

MARTÍNEZ, Juan José, *Derecho de sucesiones. Común y Foral*, I tomoa, 3ª ed. Dykinson editoriala, Madrid, 2005, 298-300.orr; AFONSO RODRÍGUEZ, Elvira, *El testamento mancomunado*, *Revista Crítica de Derecho Inmobiliario*, núm. 633, 1996, 360-362.orr; LETE DEL RÍO, José Manuel, *Del testamento mancomunado, Comentarios al Código Civil y Compilaciones Forales*, XXXII tomoa, 2º Bol., Edersa, Madrid, 1997, 1020.orr.

⁹ ALFONSO RODRÍGUEZ, Elvira: “El testamento mancomunado” ... obr. Cit. 267.or Oinordetza itun kontsidera daitezke, zuzenbide erromatarrean ez zirelako testamentu mankomunatuak onartzen.

¹⁰ BARRUETABEÑA ZENEKORTA, Maitek, “*El testamento mancomunado*” ... obr. Cit. 153.or dioenez, testamentu mankomunatu bat burutzen denean ez da kausatzaileen arteko kontraturik ematen ez direlako elkarren arteko bi nahi kontrajarri ematen. Erreferentzia egiten dio CUADRADO IGLESIAS, M., “*El testamento mancomunado en el ordenamiento jurídico español después de la Ley de 24 de diciembre de 1981*”. Madrid. (Editorial Revista de Derecho Privado), 1983. 1098-1099. Orr-etan adierazitakoari: “*La nota de irrevocabilidad que caracteriza al contrato sucesorio si se dan los supuestos de normalidad del mismo, lleva inherente la vinculación del ordenante, y es precisamente en esta nota donde se ha puesto, en forma destacada, el criterio diferenciador entre el testamento mancomunado y el contrato sucesorio*”.

Testamentu mankomunatuena jatorri zehatza Zuzenbide Erromatarrean eta Bisigodoan kokatu ezin dela eta, autoreen artean adostasuna dago, jatorri hori Goi Erdi Aroan kokatzeko¹¹. Testamentu kontzeptuak aldentzen jarraitzen zuen, garai batean Zuzenbide Erromatarrean izan zuen definizio konkretetik (txit pertsonal izate hori, adibidez). Baldintzen zabalpenak, ohiturazko praktiken ezarpena ekarri zuen denboran zehar, eta aztergai dugun testamentu mota egunerokotasunean erabiltzen hasi zen biztanleria, nahiz eta zuzenbide positiboan aldaketa zehatzik eman ez.

Garai hartan, beraz, egunerokotasuneko praktika izan zen pertsona bik batera jardunda testamentua egitea ahalbidetu zuena. Aukera bideragarria bihurtu zen, eta aukera izatetik, azkenean, ohituran errotu zena, jarduna bihurtu zen¹². Ermandadeko testamentuen lehen arrastoak ohituraren bitartez gauzatu baziren ere, ezarpen legalaren lehen adibideak ez ziren era bateratuan gauzatu penintsulako Zuzenbide Foral zein Gaztelako Zuzenbidean.

Gaztelako Zuzenbideari erreparatuz, Foru Errealean eta -“Partidetan”- eman zela defendatzen dute batzuek, 3. Liburuko 5. Tituluan eta 5. Partidako XI tituluko 33. legean, hurrenez hurren. Bertan, senar-emazteek beraien ondasunei buruzko akordioa egitea ahalbidetzen zen (ezkondu eta urte batera gutxienez, eta seme-alabarik ez bazegoen). Hala ere doktrinaren gehiengoak ez du uste aipatutako idatzi legeletako adibide horiek testamentu mankomunatuena erreferentzia kontsidera daitezkeenik¹³.

Beste zuzenbide foraletan (Euskal Zuzenbide Zibilaren historia hurrengo puntuan azalduko da) era desberdinetan eman da garapena.

Galiziar dagokionez, legegintzarako autonomia faltak testamentu mankomunatuak idatzizko legeetan ez agertzea ekarri zuen. Hala ere, praktikan, ohitura dela medio, oso

¹¹ BARRUETABEÑA ZENEKORTA, Maite, “*El testamento mancomunado*” ... (tesia) obr. Cit. 11.Or

¹² BARRUETABEÑA ZENEKORTA, Maitek, bertan, 28-29.orr azaltzen du tesi hori defendatzen dutela autore hauek, besteak beste: BINDER, Julius, *Derecho de sucesiones*, Labor editoriala, Barcelona, 1953, 120.or, TEXEIRA GRACIANETA, Antonio, “*El testamento mancomunado*” ... cit. 19.or, LETE DEL RIO, José Manuel: “*Del testamento mancomunado...*”, cit., 1021.or: edo ALBALADEJO, Manuel: *Comentarios al Código Civil y Compilaciones Forales*. Edersa, Madrid, 1990, 107.or.

¹³ López Suárez, *El testamento mancomunado en la ley de Derecho Civil de Galicia*, Coruña Unibertsitatea, 2002, 28-29. orr.

erabilia izan zen figura da. Kode Zibila indarrean sartu zenean, ohituran oinarria zuen zuzenbide forala bertan behera geratu zen (haren aurkakoak ziren heinean). Hala gertatu zen testamentu mankomunatuaren figurarekin (1963eko Galiziako Zuzenbide Zibil Bereziaren konpilazioan ez zen figura arautu, eta subsidiarioki Kode Zibilaren debekuaren menpe geratu zen). Legediak debekatu arren, egunerokotasunean erabiltzen jarraitu zen (nahiz eta testamentu desberdin bi egiten ziren eduki berdinarekin, debekua saihesteko asmoz)¹⁴.

Aragoin kasuan, ohiturazko zuzenbidearen menpe arautzen zen figura izan zen testamentu mankomunatua 1925era arte. Urte horretan Kode Zibilari lehen apendizea egin zitzaion, Aragoiko Zuzenbide Foral Zibilari zegokiona eta bertan arautu zen idatziz lehenengoz, testamentu mankomunatuaren figura. Hortik aurrera, 1967ko Konpilazioetan, Hiltzeengatikiko Oinordetzei buruzko 1/1999 Legeak eta egun indarrean dagoen 2011ko Aragoiko Zuzenbide Zibilaren Kodeak (hemendik aurrera, AZZK) arauketa desberdinak egin dituzte figurari dagokionez¹⁵.

Nafarroan berriz, testamentu mankomunatuak historikoki ermandadeko testamentuaren izena izan du. Testu juridiko historikoetan etengabe islatu den figura da, ohituran guztiz errotuta egon denaren isla. Viguerako eta Val de Funesko Foruetan aurki daiteke ezkontideen ondasunak batera ordenatzeko aukera ematen zuen tresna bat lehenengoz eta, 1238ko Foru Kode primitiboan (Nafarroako Foru Orokor gisa ezaguna) ere arautu zen¹⁶. Hala, bestelako erregulazio batzuk medio, 1973ko martxoaren 1ean aldarrikatu zen Nafarroako Foru Berrian Ermandadeko testamentua 199tik 205era bitarteko legeetan arautu zen, eta horiek, funtsean, berdín mantentzen dira gaur egun.

3.2.2. Aurrekariak Euskal lurraldean. Euskal Zuzenbide Zibila.

¹⁴ Galizian testamentu mankomunatuak izan duen historiari dagokionez, ikus López Suárez M.A, *El testamento mancomunado en la ley de derecho civil de Galicia*, Cit., 28-39. orr.

¹⁵ SÁNCHEZ-RUBIO GARCÍA, Alfredo, *El testamento mancomunado aragonés*, Revista de derecho civil aragonés, ISSN 1135-9714, 18. Zenbakia, 2012, 124.or.

¹⁶ GARCÍA-GRANERO FERNÁNDEZ, J., «Del testamento de hermandad», Comentarios al Código civil y Compilaciones forales, X30CVII Tomoa, 1.º Bolumena, EDERSA, Madrid, 1998, 517.or

Jakina da, euskal Zuzenbide Zibilaren bilakaera historikoa ez dela bateratua izan, eta Lurralde Historiko bakoitzak marraztu duen bidea desberdina dela. Beraz, testamentu mankomunatuak EAE-n izan duen bilakaera historikoa aztertzeke ezinbestekoa da lurralde historiko bakoitzaren bilakaera aztertzea, banan banan. Alde batetik, historia generikoa landuko da, ondoren testamentu mankomunatuak euskal lurraldeetan izan duten bilakaeran sakonduz.

Bizkaia

Bizkaiko bilakaera historikoak eta lurralde-bilakaerak eragina izan du haren garapen juridikoan. Hasiera batean Bizkaia “Bizkaia nuklearrak” osatzen zuen, eta lurralde horri Durangaldea eta Enkarterriak batu zitzaizkion. Hiru lurraldeek "erakunde komun" batzuk partekatzen bazituzten ere eta Jaun beraren menpe bazeuden ere, bakoitzak bere egitura politikoa mantentzen zuen¹⁷.

Hasierako banaketa hori gaindituta Lur Lauaren¹⁸ eta Hiribilduen arteko banaketa existitu da Bizkaian. Jakina denez, Zuzenbide Zibilaren aplikazioari dagokionez bakoitzak bere erregimena izan du. Alde batetik, Lur Laua (Lur Lauko biztanleak aforatuak ziren) Bizkaiko zuzenbidea aplikatzen zen zonaldea zen, eta bestetik, Hiribilduen kasuan (Hiribilduetako biztanleria ez aforatua zen), 1379an, Bizkaiko Jaunak, Gaztelako erregea ere bazenak (Juan I), Alcala-ko Ordenamendua aldarrikatu zuen haientzat. Hau da, alde batetik Bizkaiko Zuzenbidea aplikatzen zen Lur Lauan eta bestetik, Gaztelako Zuzenbidea “Hiribilduetan¹⁹. Lege aniztasunak gatazkak sortu izan ditu, izan ere, eman da kale berean espalo desberdinetan zuzenbide desberdinak aplikatu behar izan den egoerarik.

¹⁷ GIL RODRIGUEZ, Jacintok, *Manual de Derecho...* cit., 25. Or. adierazten duenez: “*En la Bizkaia que hoy conocemos convergen tres organizaciones previas (Bizkaia originaria o nuclear, Durangesado y Encartaciones) que cuentan con sus propias normas y, siquiera inicialmente conservan sus esquemas organizativos*”.

¹⁸ BARRUETABEÑA ZENEKORTA, Maitek, “*El testamento mancomunado*” ... (tesia) obr. Cit. 32.Or.-an dioenez: “*Alforo la designación de Tierra Llana para referirse al resultado de la conjunción de las indicadas anteiglesias*”.

¹⁹ Hala ere, BARRUETABEÑA ZENEKORTA, Maitek, bertan, 35-36. Orr-etan azaltzen duen bezala, zonalde bakoitzean aplikatzen zen zuzenbidea zein zen erabakitzeke irizpidea ez zen hain sinplea eta egoera konplexua zen. Adibidez, zenbait Hiribilduk Zuzenbide biak zerabiltzaten.

Foru Zaharrea arautu zen lehenengoz testamentu mankomunatua Bizkaiko Zuzenbideari dagokionez, Foru horretako 124. Legean zehazki. Bizkaian tradizio handia izan duen praktika plazaratu zen Lege horrekin. Azpimarratzekoa da, ezkontideen artean burutzeko egintza baino ez zela. Beste alde batetik, denboran luzaro iraun zuen araua ezarri zen: ezingo zen testamentuaren errebokaziorik egon, baldin eta testamentua eman eta urte bateko epean ezkontideetako bat hiltzen bazen (ulertzen da egoera horretatik kanpo baliogabetze librea egin zezakeela ezkontide bakoitzak). Hala ere beste egoera batzuk airean uzten zituen: biak bizirik egindako ezeztatzea, bietako bat urte beteko epe hori igaro ostean hiltzea...

XIX. mendearen hasieran gauzatu zen Foru Berriak barne hartu zuen berori. Kasu horretan, XXI tituluko lehen Legea izan zen aurreko Foruaren 124. Legearen testigua hartu zuena. Nahiz eta oinarrian erregulazioa aurrekoaren antzekoa izan, ezarri ziren aldaketa batzuk. Horien artean, testamentuko ondasunak saltzeko, besterentzeko edo xedatzeko arauak ezarri ziren adibidez (errebokaezintasuna arautzeko Foru Zaharrak erabiltzen zuen urte beteko epearen erregela erabiliz). Foru Berriko erregulazioak indarraldi luzea izan zuen.

XIX mendearen amaieran eta XX mendearen hasieran oso hedatua izan zen testamentu mankomunatuaren aurkako iritzia. Izan ere, Frantziako Kode Zibilak (aurrerago esan bezala) debakatu egin zuen eta baita Espainiarrak ere. Bizkaian ere asko izan ziren aurka egin zioten ahotsak, haren praktikotasunaren falta azpimarratuz²⁰.

Azkenik, 1992an testamentu mankomunatua arautu zen, EAE-ko Zuzenbide Zibil Foralari buruzko uztailaren 1eko 2/1992 Legean.

Gipuzkoa

²⁰ BARRUETABEÑA ZENEKORTA, Maitek, *El testamento mancomunado...* (liburua) cit. 38. or. dioenez, Kodifikazio garaian konpilazioak egiten ari zirenean (1959ko Bizkaia eta Arabakoa), euskal kodifikatzaileak doktrina Espainiarrean uztartzen ari zen testamentu mankomunatuaren aurkako jarrerak eraginda jardun zuten, eta arrazoiak azaldu zirenean “Forua oinarritzen duten printzipioen”-en barruan sartzen ez zela azpimarratu zen.

Gipuzkoarren erregimen juridiko berezia XII. Mendetik aurrera sortu zen²¹. Donostiak Forua jaso zuen 1180an gutxi gora behera, eta hortik beste bizi-nukleo batzuk ere foru desberdinak jaso zituzten, azkenean 24 Hiribildu sortu arte²². Bestalde, Gipuzkoarrek haientzako egindako Anaitasun Koadernoak eta Ordenantzen bildumak zeuden, baina horiek ez zuten ondare zuzenbideari buruz jarduten²³.

Baina, ohituratik eratorriak ziren testamentu mankomunatuaren figura eta bestelako ondorengotza egintzak Gipuzkoako Zuzenbidean. Baserría familian mantentzeko araudietatik eratortzen da testamentu mankomunatuaren figura. Gipuzkoan, testamentu mankomunatuak erabiltzen ziren ezkontideek baserriaren ondorengotza instrumentu bakar batean islatzeko²⁴.

Azaroaren 26ko 3/1999 Legean, 172-178. Artikuluetan ezarri zen testamentu mankomunatuaren erregulazio positiboa lehenengoz, eta Gipuzkoako ohiturazko erregimena eta erregimen pribatiboaren bide autonomia hori bukatu zen, Gipuzkoako Foru Zibila Euskal arauan sartu zenean²⁵.

²¹ GIL RODRIGUEZ, Jacintok, *Manual de Derecho...* cit., 26.Or.

²² MÚGICA BRUNET, José Ignacio, *Guipúzcoa y sus Fueros*, “Boletín de estudios históricos sobre San Sebastián”, 1997, 731.Or.

²³ BARRUETABEÑA ZENEKORTA, Maitek, *El testamento mancomunado...* (liburua) cit. 38-39. Orr.

²⁴ FERNÁNDEZ – SANCHO TAHOCES, Ana Suyapa, *La regulación sucesoria de la propiedad del caserío en el territorio histórico de Guipuzcoa*, Euskal Herriko Unibertsitatea, 2009, 883. Or. Helburua sozietate ganantzialek sortu zitzaketen arazoak gainditzea zen, testamentua era mankomunatuan burutuz. Nahi horren arira, autoreak aipatzen du ARRIAGA SAGARRA-k, *Libertad de testar, legitima foral y desheredación en el Derecho navarro*, Iruña, 1948, 6.or.-an adierazia: “Los padres, con celosa providencia, han tratado de inquirir las condiciones de cada uno, sus aptitudes y garantías, y con espíritu casi religioso, van a otorgar la carta de donación propter nupcias o a instituir heredero en un testamento que harán de mancomún, puesto el corazón en la memoria de los antepasados y la mente en el supremo interés de la familia y de la casa”.

²⁵ GIL RODRIGUEZ, Jacintok, *Manual de Derecho...* cit., 26.Or.

Araba

Araba hiru demarkaziotan banandua egon da unifikazio garairaino²⁶. Horietako bat Llodio eta Aramaioko lurraldeetakoak izan da, eta horietan Bizkaiko Zuzenbide Zibila aplikatzen da. Horrez gain, Arabako beste zonalde luze batean, Kode Zibila edo zuzenbide komuna da aplikagarria.

Azkenik, Arabako zuzenbide foralari erreferentzia egiten zaionean eta testamentu mankomunatua barne hartu izan duen Arabar zuzenbide zibilari buruz hitz egitean, Aiarako Foruari buruz gabilta. Aiarako Foruaren printzipio oinarrizkoa da oinordetza askatasuna (espresuki ezartzen da gainera)²⁷.

Nahiz eta espreski testamentu mankomunatua baimendu ez, ulertzen da oinordetza askatasun horren menpe testamentuari dagozkion nondik norako guztiak askatasun printzipioari jarraiki burutu daitezkeela²⁸. Hau da, askatasun hori oinordetzaren arlo guztiari aplikagarria bazaio, Aiarako Foruak defendatzen duen autonomiak testamentu mankomunatuak egiteko marko gisa egin dezake.

3.2.2.3. Kode Zibilaren debekua. Zuzenbide Komuna.

Testamentu mankomunatuaren aurrekariak finkatzeko orduan, aipagarria da Zuzenbide Komunari dagokionez Kode Zibilak 669.art.-an inposatutako debekua: *“Bi pertsonak edo gehiagok ezin dute testamenturik egin modu mankomunatuan edo instrumentu berean,*

²⁶ GIL RODRIGUEZ, Jacintok, *Manual de Derecho...* bertan., 25.or-an adierazten duenez: *“procede remarcar que aproximadamente el 89% de los alaveses permanecía sujeto al Código civil; alrededor de un 6,3% lo estaba al Fuero vizcaíno y casi un 4,5% se regía por el Fuero de Ayala.”*

²⁷ CELAYA IBARRA, Adrián: *Derecho foral y Autonómico*, Bilbo, Deustuko Unibertsitatea, 1989, 278.Or. dioenez: *“todo el sistema de Derecho civil ayalés de resume en un solo principio: libertad de testar.”*

²⁸ BARRUETABEÑA ZENEKORTA, Maitek, *El testamento mancomunado...* (liburua) cit. 43.Or. dioenez: *“es evidente que la testamentifacción conjunta como tal no encuentra transcripción alguna en el Fuero de Ayala, pero el criterio de libertad que actúa como abanderada de este cuerpo legislativo puede albergar, por qué no, cierta holgura en cuanto a la posibilidad de otorgar testamentos de manera conjunta”*.

nahiz eta testamentua pertsona horien guztien onurarako edo beste inoren onurarako izan”.

Kontzeptuaren atalean azaltzen genuenaren harira, Zuzenbide Komunaren arabera testamentuei exigitzen zaizkien baldintza batzuekin talka egiten dute testamentu mankomunatuak. Horien artean, txit pertsonal izate hori, unilateralitatea etab. Aurkitu ditzakegu. Badirudi horiek izan daitezkeela debekuaren arrazoi batzuk.

Historiari dagokionez, XIX. mendetik aurrera, testamentu mankomunatuak aurkako joerak inposatzen hasi ziren. Garai hartan, testamentugilekide ahulena defendatu nahi zen eta testamentu mankomunatuak errebozkazio konplexuak ere saihestu nahi ziren.

Dena dela, badirudi, Kode Zibilak ezarritako debekuak zuzenbide komuna aplikagarri zen zonaldeko ohiturazko praktika bat ezkutatu zuela. Ideia hori konfirmatzen du Kode Zibileko 2. Xedapen Iragankorrak (aurreko legeriaren arabera egindako egintza eta kontratuen ondorioak aitortu zituen, testamentu mankomunatuak barne, eta horrek praktika horren nolabaiteko legitimitatea iradokitzen du).

4. EUSKAL ZUZENBIDE ZIBILAREN APLIKAZIO EREMUAK.

EZZL-ak testamentu mankomunatuak ezeztatze eta aldaketa unilateralen auzian sartu aurretik, ezinbestekoa da legearen beraren aplikazio eremuak finkatzea. Horretarako, auzotartasun zibila zer den eta Legearen aplikazio eremuak (lurraldetarra eta subjetoa edo pertsonala) azalduko ditut.

4.1. UZTAILAREN 1eko 3/1992 LEGEA ETA AZAROAREN 26ko 3/1999 LEGEA.

Uztailaren 1eko 3/1992 legeak eta azaroaren 26ko 3/1999 Legeak eragin garrantzitsua izan dute euskal zuzenbide zibil bateratua garatzeko bidean. Egun indarrean dagoen 15/2015eko Legearen zuzeneko aitzindariak direla kontsideratu dezakegu.

Lehen aldiz, euskal zuzenbide foralak (Bizkaikoa, Gipuzkoakoa eta Arabakoa) lege berdinean batu ziren. Hau da, foru eta Lurralde Historiko bakoitzari zegokion liburu

banak osatzen zuten gorputz normatiboa²⁹. 1999-eko legeak Gipuzkoako Forua garatu eta atxiki zuen (testamentu mankomunatua barne) aurretiaz 1992-an ezarri zen Gipuzkoako Foruaren aipamenaren orde.

Euskadiko biztanle guztiei aplikagarri izango zen Euskal Zuzenbide Zibil autonomikoa lortzeko aurrerapen handia egin zen. Lege horiek testamentu mankomunatuaren ezeztatzeen inguruan ziotena aurrerago aztertuko dugu, gai horri dagokion atalean³⁰.

4.2. 5/2015 LEGEAREN LURRALDE APLIKAZIO EREMUA

EZZL-aren 8. Art.-aren arabera: *“Lege hau Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde-eremu osoan aplikatuko da, salbu eta manu zehatzek beren-beregi adierazten dutenean manu horiek lurralde jakin batean bakarrik daudela indarrean”*. Beraz, printzipioz, legea aplikagarri den eremua EAE izango da.

Dena den, ezartzen den salbuespena, aurretiaz existitu izan den Lurralde Historikoen arteko banaketan oinarritzen da. Izan ere, egun, EZZL-ak erakunde foral batzuk mantentzen ditu azpi-ordenamendu gisa, hala nola, Aiarako lurraldeari dagokion oinordetzarako askatasuna.

4.3. 5/2015 LEGEAREN APLIKAZIO EREMU SUBJEKTIBOA. AUZOTARTASUN ZIBILA.

Aurrekariak aurrekari, egun ezagutzen den Euskal Zuzenbide Zibila ulertzeko, ezinbestekoa da 5/2015 Legeak eragindako aldaketa garrantzitsuena azaltzea³¹.

²⁹ GIL RODRIGUEZ, Jacintok, *Manual de Derecho... cit.* 33. Or.

³⁰ Lege horien arabera testamentu mankomunatuak (errebokazio eta aldaketa unilateraletatik kanpo) euskal zuzenbide zibilaren arabera zeukaten arauketa ezagutzeko, ikus BARRUETABEÑA ZENEKORTA, Maitek, *El testamento mancomunado... cit.*

³¹ GIL RODRIGUEZ, Jacintok, *Manual de Derecho... cit.*, .39 Or. Azaltzen du: *“dice la exposición de motivos de la Ley 5/2015, de 25 de junio, de Derecho Civil Vasco, y acierta (siquiera en la idea), que su innovación más importante es la regulación de la vecindad civil vasca”*

Hala adierazten du Legeak haren 10.1. artikuluan auzotartasun zibilari dagokionez: “1.– Euskal Autonomia Erkidegoko Zuzenbide Zibila aplikatzen zaie euskal auzotartasun zibila duten pertsona guztiei.”. Auzotartasun zibil euskalduna nork daukan Kode Zibileko arauen arabera ezartzen da, beraz.

Auzotartasun zibila bakoitzari aplikagarri izango zaion Zuzenbide Zibila (komuna edo forala) zein izango den erabakitzeko irizpidea da. Gurasoetatik eratorria izateaz gain, zuzenbide berezien menpe jartzea posible izango da 2 urte toki konkretuan bizi izanda eta lekuko auzotartasuna eskuratu gura duela adierazita edo, bestela, hamar urte toki konkretuan bizi ezker, automatikoki. Gainera, posible izango da, ezkontide direnen artean, batak bestearen auzotartasun zibila aukeratzea (KZ-aren 14.4. Art.-a).

Kontutan izan behar dugu, aurretik zegoen egoera (aurreko atalean aztertutako hori) ikusita, aldaketa nabarmena izan dela. Egun, lege berriaren menpe agertzen dira, aurretiaz auzotartasun zibila Euskal Autonomia Erkidegoan zeukatenak (nahiz eta zuzenbide komunaren menpe egon). Hala adierazten du, 5/2015 legeko zazpigarren xedapen iragankorrek: “*Lege hau indarrean jartzeaz geroztik, Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldeetatik edozeinetan auzotasun zibila dutenek zuzen-zuzenean eskuratuko dute euskal auzotasun zibila, eta, hala denean, eurei dagokien toki-auzotasun zibila ere bai (...)*”.

Beraz, 2015etik aurrera, euskal auzotasuna duten guztiak lege horren menpe geratzen dira (nahiz eta lurralde historiko bakoitzak dituen berezitasun batzuk existitzen diren – adibidez, Aiarako lurraldean testamentuak egiteko askatasuna)³². Baina, esan bezala,

³² FRANCISCO DE BORJA IRIARTE, Ángel, *La actualización del Derecho Civil Vasco en el año 2015: una visión desde la práctica*, Iura Vasconiae, 2016, 329. Or. Berezitasun horiei buruz dihardu: “*Un cambio sustancial y significativo, en tanto se acaba la diferencia entre aforados y no aforados dentro del País Vasco (...). Pero como ya les adelantaba, con ciertas especialidades locales que deben ser tenidas en cuenta; son las llamadas vecindades civiles locales: Los vecinos de la Tierra Llana de Bizkaia (...) estarán sometidos a sus propias reglas en materia de troncalidad y régimen económico matrimonial (arts. 10.3, 61 y 127.3 LDCV), los ayaleses siguen disfrutando de su histórica libertad de testar (arts 88 a 95 LDCV), en Gipuzkoa rige una definición específica de caserío a los efectos de las transmisiones gratuitas (arts 96 a 99 LDCV)*”

eta salbuespenak salbuespen, hiru lurralde historikoetako biztanleria, lege berriaren esanetara geratu da³³.

5. TESTAMENTU MANKOMUNATUEN EZEZTATZE ETA ALDAKETA UNILATERALAK EZZL-REN ARABERA. BESTE ZUZENBIDE FORALEKIN KONPARAKETA.

Testamentu mankomunatuen testuinguru orokorra (euskal zuzenbide zibilaren historia barne) finkatuta, mota horretako testamentuen ezeztatze eta aldaketez arituko gara, zehazki 27.3. Art.-aren eta 28.3.Art.-aren azterketa juridikoak eginez. Pertsona bi edo gehiagok egiten duten testamentua dela kontutan izanda, horiek ezeztatzeko edo aldatzeko erregelak bereziak izan behar direla begi-bistakoa da, batez ere, bietako bakarra denean aldaketa edo ezeztatze hori burutu nahi duena. Aldaketa eta ezeztatze unilateralez ari naiz, bada³⁴.

³³ GIL RODRIGUEZ, Jacinto, *Manual de Derecho...* cit., .39 Or azaltzen du: “(...) o sea, desde el 3 de octubre de 2015, prácticamente, todos los alaveses, guipuzcoanos y vizcaínos nos regimos por sus dictados, especialmente, por los que ofrece sobre la sucesión mortis causa”.

³⁴ BARRUETABEÑA ZENEKORTA, Maitek, *El testamento mancomunado...* cit. 345. Or: “la revocación unilateral suscita mayores dificultades”. GIL RODRIGUEZ, Jacintok, *Manual de Derecho...* cit. 336-337.Orr ildo beretik dio. “Naturalmente, mayor complejidad lleva asociada la habilitación y el encauzamiento de una eventual revocación o modificación individualmente decidida (...)” Hala ere, izan dira horren aurka izan diren autoreak, hala nola, CUADRADO IGLESIAS, Manuel, *El testamento de mancomunado en el...*cit. 1112. Or, “nada de excepcional o insólito tiene la revocación o modificación unilaterales del testamento mancomunado en las legislaciones que reconocen esta forma testamentaria”.

Lehenengo, euskal zuzenbide zibilaren arabera azalpena emango da (bai 1992-1999ko legeetan ezarritako erregulazioa eta baita egun indarrean dagoen 5/2015 legekoa) eta gero beste erregimen foralei helduko zaie, horien artean dauden desberdintasunak aztertuz. Horren ostean, aipatutako artikulua horien gaineko doktrina aztertuko da.

Kontutan izatekoa (aurretik datorrena ulertzeko), 27.3. Art.-a eta 28.3. Art.-a ezeztapen eta aldaketa unilateralak arautzen dituzten artikulua direla. Lehenengoak testamentugilekidea bizirik dagoela egiten den ezeztapen edo aldaketa arautzen du eta bigarrenak, berriz, teoriarik behintzat, testamentugilekidea hilda dagoenean egiten den aldaketa edo ezeztapena.

Horren aurretik, 26.Art.-ak testamentugilekide diren biek batera egiten duten ezeztapen edo aldaketa erregulatzen du (baina ez diogu arreta gehiegi emango, ez delako hori, interesekoa zaigun gaia).

Aipagarri da, testamentu mankomunatuaren ezeztatze unilateralei erreferentzia egiten diegunean, garrantzia duela errebokatzen diren atalen arteko mendekotasun edo mendekotasu eza. Aurretiaz kontzeptuaren atalean azaldu dugun arira, nahiz eta elkarren arteko klausulen existentzia testamentu mankomunatu baten izate edo ez izate arrazoi gisa konfiguratu ez, ohikoa da, testamentugile batek, bestearen xedapenetan kausa duten klausulak ezartzea³⁵. Hurrengo atalean aztertuko da zergatik daukan garrantzia testamentuaren edukia berezitasun horrek.

5.1. EUSKAL ZUZENBIDE ZIBILAREN ARABERA

5.1.1. Euskal Zuzenbide zibilaren 5/2015 Legea.

27. Artikuluak testamentugilea bizirik dagoela egiten den ezeztapen edo aldaketa unilateralarik buruz dihardu:

³⁵ GIL RODRIGUEZ, Jacinto, “El testamento mancomunado vasco, en perspectiva de unificación”, *Estudios jurídicos en homenaje a Vicente L. Montés Penadés*, Francisco de Paula Blasco Gascó, Mario Enrique Clemente Meoro, Francisco Javier Orduña Moreno, Lorenzo Prats Albentosa, Rafael Verdura Server, Vicente Luis Montés Penadés, Tirant lo Blanch, 2011, 1203. Or. “*Se consideran correspectivas las cláusulas testamentarias de contenido patrimonial que tuvieren su causa en las disposiciones del otro*”.

“1.– Testamentugilekidea bizirik dela aldebakarreko ezeztapen edo aldaketa egiteari dagokionez, hori ere notarioaren aurrean egiletsitako testamentu ireki bitartez edo oinordetza-itun bitartez gauzatu beharko da, eta testamentugilekideari jakinarazi beharko zaio modu fede-emailean. Baimena ematen duen notarioak egingo du jakinarazpen hori, hurrengo hamar egunen barruan eta haren aurrean azaldutakoak adierazitako bizilekuan. Gainera, bizileku hori desberdina balitz, ezeztaturiko edo aldatutako testamentuan jasotako bizilekuan ere egingo du jakinarazpena.

2.– Alabaina, eta alde batera utzirik egotzi dakizkikeen erantzukizunak, egilesleak testamentugilekidearen bizilekua faltsutzeak edo ezkutatzeak, eta orobat beharrezko jakinarazpena ez egiteak, ez dio eragingo arrandiro egindako ezeztapen edo aldaketaren eraginkortasunari.

3.– Testamentuaren aldebakarreko ezeztapen edo aldaketatik, eragingabe bihurtuko dira ezeztaturiko testamentuaren klausula guztiak”

Printzipioz, artikulua horren arabera, aldaketa edo ezeztapen unilaterala hori notarioaren aurrean egin beharko da, testamentu ireki edo oinordetza itun baten bitartez. Ondoren, 10 egunetan testamentugilekideari jakinarazi beharko zaio (notarioak egingo du jakinarazpena, aldaketa edo ezeztapena egin duenak beste testatzailearen helbidea emanda). Hala ere, testamentugilekideari eta notarioari jakinarazteko ezartzen zaizkien betebeharrak ez dute errebozazio edo aldaketaren eraginkortasunari eragingo.

Eta zer gertatzen da aldaketa edo ezeztatzea burutu ez duen testamentugilekideak testamentu horretan ezarritako edukiarekin? Horri erantzuten dio aztergai dugun 27.3. Art.-ak. Testamentu osoari eragingo zaio, eta testamentu osoko klausulak bilakatuko dira eragingabeak.

28.Artikuluak testamentugilea hilik dagoela egiten den ezeztapen edo aldaketari buruz dio:

“1.– Egilesleetako bat hil ondoren, besteak ezingo ditu ezeztatu ez aldatu hark bere jarauntsi propioari buruz egiletsi dituen xedapenak, baldin eta aurrez hildakoaren xedapenak badituzte horiek izate-arrazoi.

2.– Testamentuak besterik ezartzen ez badu, bizirik gelditzen denak ezingo du dohainik xedatu elkarmendetasuneko xedapenen helburu izendatu diren ondasunak, ez baldin bada testamentu mankomunitate horien onuradun izendatu diren pertsonen alde. Bestela,

kaltetuak ondasunon balio eguneratua erreklamatu ahal izango die dohaintza-hartzaileei, xedapenen egilea hiltzen denetik kontatzen hasita bi urteko epean.

3.– Ezkontideen kasuan, deuseztasun-, banantze- edo dibortzio-epaia emanez gero, edo izatezko bikoteen kasuan bikote hori bikotekideen bizitza bitartean azkenduz gero, azkentzea haien arteko ezkontzak eragiten duenean izan ezik, ondorerik gabe geratuko dira haren xedapen guztiak, salbu eta elkarren mende egin direnak desgaitasuna duen seme edo alabaren mesederako.”

Artikuluak, testamentugilekidea jada hilda dagoela, beste testatzaile mankomunatuak aldaketa edo ezeztatzea egiteko daukan ahalmena arautzen du. Kontutan izan behar da, 29. Art.-ak adierazten duenari jarraiki, hil den testatzailearen oinordetza ireki egingo dela eta efikazak bihurtuko direla hark ezarritako xedapenak.

Horren aurrean, 28.1. Artikuluaren arabera, ezingo dira unilateralki eta arbitrarioki aldatu edo ezeztatu, korrespektiboki ezarritako klausulek ukitzen dituzten ondasunei dagozkien xedapenak. Horrez gain, 28.2. Art.-aren arabera, ezingo ditu bizi den testamentugilekideak dohain xedatu klausula korrespektiboetara lotuta geratu ziren ondasunak. Hala ere, eremu horretatik kanpo dauden ondasunak aske xedatu ditzake.

Artikulu horren lehen atalen funtsa izango da, beraz, bizi den testamentugilekideak bestearen borondatea ondare-erakundearen husteko posible dituen iruzurrezko maniobrak saihestea³⁶.

Azkenik, interesekoa zaigun 28.3. Art.-ra heltzen gara. Haren arabera, klausula guztiak eragingabe bilakatuko dira, senar – emazteen edo izatezko bikoteen bizikidetzara apurtzen denean (kontutan izan testamentu mankomunatuaren historian aipatutakoa; ezkontideen

³⁶ TENA PIAZUELO, Isaac, “La sucesión por testamento mancomunado o de hermandad en el nuevo Derecho Civil Vasco”, Revista de Derecho Civil, 2019, 77. Or dioenez, “El art. 28 LDCV fundamenta una suerte de cautela, la de evitar las maniobras fraudulentas del cotestador superviviente para vaciar de contenido patrimonial la voluntad del otro, mediante ciertos actos inter vivos. Lo que se concreta (respectivamente, en los dos primeros párrafos del artículo en cuestión) en la imposibilidad, tras la muerte del cotestador, de revocar o modificar las disposiciones correspondientes que hubiese otorgado el sobreviviente, así como en la limitación de sus facultades dispositivas, para disponer a título gratuito de los bienes que se hayan señalado como objeto de las disposiciones correspondientes”

arteko testamentu mankomunatuak izan zirela fenomenoaren oinarri). Ez da egiten ezkontide edo izatezko bikoteen arteko bizikidetzen artean desberdintasunik.

Azken atalean esaten du, salbuespen gisara, ez direla eragingabe bihurtuko, desgaitasuna duen edo adingabeak seme-alabaren alde egin diren klausula korrespektiboak, nahiz eta elkarbizitza bukatu. Hala ere, ez da zehazten seme-alabak bienak izan behar diren edo ez. Beraz, klausula korrespektibo horiek ez dira automatikoki eragingabe bihurtuko, eta efektu hori eman dadin, notaritzaren bitartez egin beharko da.

Bestetik, aipagarri da, 25.3 artikulua arabera, elkar mendekotasun edo korrespektibotasun hori ez dela presumituko, nahiz eta elkar mendekotasun hori inplizituki ulertu daitekeen.

Horiek dira, edukiari dagokionez, ezeztatze eta aldaketa unilateralei dagokienez, EZZL-ak ezartzen dituen arauak.

5.1.2. 5/2015 Legearen aurretik. Konparaketa.

5.1.2.1. Araua

Egun indarrean dagoen legea nondik datorren ikusteko, ezinbestekoa da aurretiaz zegoena aztertzea eta konparaketa egitea.

1992-ko Euskal Zuzenbide Zibil Foralaren legean, errelokazio unilateralak 51 eta 52 artikuluan arautzen ziren Bizkaiko legeri zegokionez eta 172-178 artikuluetan Gipuzkoakoari zegokionez. Aurretik aipatu dugunari jarraiki, Arabaren kasuan ez zen aztergai dugun figura espreski arautzen, nahiz eta oinordetza printzipiopean testamentu mankomunatuak lekua eduki zezaketen.

Bizkaian, 51. Art.-ak zera zioen: *“Senar-emazteetariko batek ere ezeztatu dezake bere aldetik alkarregaz edo ermandadean egindako testamentua, besteari modu egiazkoan jakinarazita. Hori barik, ezeztapenak ez du indarririk izango. Alde batek alkarregaz edo ermandadean egindako testamentua edo bere ataletakoren bat ezeztatzen bada, testamentu osoa geratuko da indargalduta”*. Bestetik, 52. Art.-aren arabera: *“Senar-emazteetariko bat alkarregaz edo ermandadean egindako testamentua egin eta urtebete baino lehenago hiltzen bada, alargunak ezin izango dau ezeztatu bion ondasunen gaineko erabakirik”*.

Historikoki, egun eta urtearen barruan (egiten zen unetik aurrera) testamentugilekideetako bat hiltzeak testamentu osoa bilakatzen zuen aldaezin eta

errebokaezina. Araudi horrek, bizirik dagoen testatzaileari errebokaezina den testamentura lotuta uzten zion³⁷. Ondoren, 1992ko legearekin, errebokazioa posible bilakatu zen nahiz eta testamentugilekideetako bat hil (errebokaezintasuna bienak ziren ondasunen xedapenetara mugatuz). Horrez gain, Bizkaiko Foruan, biak bizirik zeudela ezeztatze unilateralak baimentzen ziren, testamentu osoaren inefikazia ondorioztat ezarriz.

Gipuzkoako erregulazioari dagokionez (erregulazio hau 3/1999 Legean ezarri zen). 174. Art.-aren arabera: *“1. Ezkontza deuseztatzeko, dibortziatu edo banantzeko epaiek eraginik gabe utziko dituzte ezkontideek elkarrekiko testamentuan elkarri aitortutako liberalitateak 2. Epai horiek, halaber, eraginik gabe utziko dituzte ezkontideren batek bere jaraunspenari buruz egindako xedapenak ere, horien kausa bestearen xedapenetan datzanean. 3. Elkarrekiko testamentuan ondareari dagokionez emandako xedapen guztiek elkarrekikotasun izaera hori dutela joko da, aurkako frogarik ezean.”* Hala dio 176. Art.-ak (ezkontideak bizirik zeudenean egiten zen aldaketa edo ezeztatze unilaterali buruz): *“1. Aurreko atalean aipatzen den alde bakarraren errebokazioak edo aldaketak ondoriorik baldin badu beste testamentugileak emandako xedapenen batek kausatutako xedapenen batean, eraginik gabe geratuko dira orobat elkarrekikoak diren guztiak. 2. Aurkako frogarik ezean, errebokatzeko edo aldatzeko den testamentuan ondareari dagokionez emandako xedapen guztiak elkarrekikoak direla ulertuko da”*. Eta 177. Art.-ak zioenez (ezkontide bat hiltzen den kasurako): *“1. Ezkontide bat hiltzen denean besteak ezingo ditu bere jaraunspenari buruz emandako xedapenak errebokatu ez aldatu, xedapen horien kausa lehenago hildakoaren xedapenetan badatza 2. Halakoetan, aurreko ataleko 2. zenbakian aipatzen den ustezko elkarrekikotasuna izango da aplikagarria.”*

Gipuzkoako Foru Zibilak alde batetik, 176.Art.-an testamentugilekideak bizirik zeudenerako araua ezartzen zuen. Horren arabera, elkarrekikoak ziren klausularen bat aldatzeko edo ezeztatzen bazen, elkarrekikoak ziren klausula guztiak bertan behera

³⁷ GIL RODRIGUEZ, Jacinto, *Manual de Derecho...* cit.335.Or. azaltzen duenez, *“la revocabilidad de las disposiciones mancomunadas de última voluntad, por lo que a aforados vizcaínos respecta, arrastra de origen un tratamiento salomónico y simplista: la muerte de uno de los cónyuges dentro del año y día consolida definitivamente (vuelve irrevocable) todo el testamento”*

geratuko ziren. Bestetik, 177.Art.-ak, ezkontideetako bat hiltzean beste ezkontideak egiten zuen aldaketa edo ezeztatzeari buruz ziharduen. Zioenez, bizi zen horrek ezingo zituen aldatu edo ezeztatu korrespektiboak ziren klausulak. Gainera, lege horren arabera korrespektibo ziren eduki patrimoniala zuten klausula guztiak, kontrakorik frogatzen ez bazen.

Esan bezala, klausulak elkarren mendekoak zirela ulertzen zen, kontrako frogarik ezean. Ikusi dugunez, egun, arau hori egun ez aplikagarria. Gipuzkoako Foru Zibilak, ezeztazina eta aldaezina bilakatzen zuen testamentua, beraz, ezkontideetako bat hiltzen zenean, eduki ekonomikoari zegokionez behintzat, klausula guztiak elkarren mendekoak zirela ulertzen zen heinean³⁸.

Dena dela, lege horietan ikusi dezakegu Bizkaian eta Gipuzkoan erabiltzen zen formulak ez zirela berdinak. Alde batetik, Bizkaian, testamentu osoaren inefikazia ezartzen zen aldaketa unilateralaren efektu gisa. Bestetik, Gipuzkoan, efektuak klausula korrespektiboetara mugatzen ziren, elkar mendekotasun hori presumitu egiten zelarik.

EZZL-rekin konparaketa

Gauzak horrela interesekoak zaizkigun EZZL-ren 27.3 eta 28.3 artikuluen erreflexuak zeuden ala ez aztertu behar dugu.

Alde batetik, esan bezala, 27.3. artikulua testamentuaren inefikazia totala ezartzen du, aldaketa edo ezeztatze unilateralaren efektu gisa. Arau hori 1992an Bizkaiko Zuzenbide Foralarentzat ezarri zen arautik eratorria da. Bestetik, Gipuzkoako aruari dagokionez, ezkontideak bizirik zeudenean eta aldaketa edo ezeztatze unilateral bat gauzatzen zenean, efektua berdina izan zitekeen. Izan ere, ulertzen zen klausula ekonomiko guztiak korrespektiboak zirela, eta beraz, denak geratuko ziren ezerezean kontrakoa frogatzen zen klausuletan salbu.

³⁸ BARRUETABEÑA ZENEKORTA, Maitek, *El testamento mancomunado...* cit 377. Or. dioenez: “*ante el contenido mayoritariamente económico que suelen albergar los testamentos mancomunados, puede suceder que en el resultado se equiparen los ordenamientos de Bizkaia y Gipuzkoa, debido a la presunción vigente en Gipuzkoa.* Beraz, ezkontideek espreski arautu zitzaizkion Gipuzkoaren kasuan zeintzuk ziren klausula korrespektiboak eta zeintzuk ez, ezeztatze eta aldaketa unilateralaren efektuak kontrolatzeko asmoz.

Bestetik, 28.3. Art.-ak (gogoratu, ezkontzaren ezeztatzearen ondorioez dihardu) ezartzen duenaren aintzindaria izan daiteke Gipuzkoako Foru Zibilak 174. Art.-an arautzen zuena. Izan ere, klausula guztiak elkarrekikoak direla ulertzen zen, eta horrek, testamentu mankomunatu osoa utziko zuen eragin gabe, kontrakoa frogatzen zen klausuletan salbu. Hala ezin esan egun indarrean dagoen arauaren berdina zegoenik 1992-ko legean. Bestetik, aipagarri da, bai Bizkaiko eta bai Gipuzkoako arauetan, testamentu mankomunatua ezkontideen artean erabiltzeko tresna baino ez zela, eta espreski arautzen zela hermandadeko testamentua egin zezaketenak ezkontideak zirela.

5.2. TESTAMENTU MANKOMUNATUEN EZEZTATZE ETA ALDAKETA UNILATERALAK ESTATUKO BESTE ZUZENBIDE FORALETAN. ANTZEKOTASUNAK ETA DESBERDINTASUNAK.

Euskal zuzenbide zibilaren legeak testamentu mankomunatuaren ezeztatze eta aldaketei buruz arautzen dituenak aztertuta, beste erregimen foral batzuetan egiten diren arauketak aztertuko ditut, konparaketak egiteko helburuarekin. Hala, interesgarri zaizkigun 27.3. eta 28.3. Art.-en antzekoak diren arauak dauden aztertuko dut, ondoren, doktrina mailan egiten diren eztabaidak hobeto ulertzeko asmoz.

5.2.1 Aragoi

Euskal zuzenbide zibilean gertatzen denari jarraiki, Aragoien ere, ezeztapen unilateralen barne testamentugilekide biak bizirik daudenean egindakoak eta testamentugilekideetako bat hilda dagoela egindakoak bereizten dira. Lehenengo, Aragoiko Zuzenbide Zibilaren Kodea-ren –hemendik aurrera AZZK- 421.Art.-an formazko beharrianak zeintzuk diren ezartzen da (dioenez, formazko balditza horiek ezinbestekoak izango dira edozein aldaketa edo ezeztapenetan).

Aztergai dugun 27.3. Art.-arekin konparazioa eginez, Aragoiko araudian ez da ezartzen testamentu bateko klausula ezeztatzeak (unilateralki), beste klausula guztiak eragingabe bihurtzen dituenik. Aipatutako artikulua arabera, Aragoian, bakoitzak korrespektiboak ez diren, hau da, haren ondasunei bakarrik eragiten dieten xedapenak unilateralki ezeztatu edo aldatu ditzake (unilateralki, testamentugilekidea bizirik dagoela edo ez).

Klausula korrespektiboei dagokienez, horiek ezeztatzeko edo aldatzeko aukera testamentugilekideak bizirik daudela baino ez da baimentzen, eta horren efektua izango da beste testamentugilekidearen klausula (ezeztatu edo aldatu denaren elkarrekikoa dena) inefikaza bihurtzea. Testamentugilekideetako bat hiltzen denean, klausula horiek aldezinak bihurtzen dira, testamentuan kontrakorik xedatu ez bada³⁹.

Azken esaldi horrek izugarritzko garrantzia dauka. Izan ere, arauak testamentugilekideei kontrakoa ezartzeko aukera bermatzen die. Hala, bai korrespektiboak diren klausulen ta bai ez diren horien aldatze eta ezeztatze unilateralak izango dituzten efektuak ezarri ditzakete⁴⁰.

Bestetik, egun, AZZK-k ez du ezkontza edo izazteko bikoteen haustura testamentu mankomunatuak osotasunean eragingabe bihurtzeko kausatzat arautzen.

Aurretik indarrean zegoen Aragoiko konpilazioko (1967ko, apirilaren 8ko 15/1967 legea) 98.Art.-a aipatu nahiko nuke. Izan ere, badauka arauak, egun EZZL-k 28.3. Art.-an dioenarekiko antzekotasuna.

Hala zioen: “1.- Las sentencias de nulidad de matrimonio, de divorcio y de separación hacen ineficaces las liberalidades que los cónyuges se hubieran concedido en el testamento mancomunado y todas las disposiciones correspectivas.

2.- A estos efectos, podrá continuarse el proceso por los herederos de un cónyuge, quedando en suspenso la efectividad de dichas disposiciones y liberalidades”.

1925eko apendizet foralak, 18.Art.-an esaten zuen, testamentu mankomunatuak guztiz eragingabeak izango direla: *“si antes de la muerte de uno de los cónyuges se declara la nulidad del matrimonio, se decreta la separación conyugal o se entabla demanda de divorcio o querrela de adulterio, de la existencia de la cual sea sabedor el cónyuge al morir”.*

Beraz, Aragoien 1925eko apendizet foralak egiten zuen arauketa egun Euskal Zuzenbide Zibilean egiten denaren berdina dela, testamentu mankomunatuaren inefikaziari dagokionez behintzat (eta kontutan izanda, duela 100 urte idatzitzako artikulua dela –ez da seme alaben babes berezirik egiten, adulterioa aipatzen da...-)

³⁹ MONFIL GARÍN Esther, *El testamento mancomunado...* cit. 36-37. Orr.

⁴⁰ BARRUETABEÑA ZENEKORTA, Maite *El testamento mancomunado...* cit. 379-380. Orr.

Gero, araua malgotuz joan zen, aurretiaz aipatutako 1967ko konpilazioak egin zuen arauketara (98.Art.-a) iritsi arte. Artikulu hori indarrean sartu zenean, ez zen testamentu osoa infekaziara kondenatuko ezkontza edo izatezko bikoteen hausturak (deuseztasunak edo dibortzioak) zirela medio. Garai hartatik aurrera, testamentua berez mantendu egingo zen eta klausula korrespektiboak baino ez ziren inefikaz bilakatuko⁴¹.

Arrazoi hori testamentu mankomunatuak automatikoki inefikaz bihurtzeko joera ahulduz joan da Aragoien, akaso, testamentu mankomunatuak ezkontideen tresna eskusibo izateari utzi diotelako.

Egun antzeko araua ezarri da AZZK-ko 438.Art.-an: *“Salvo que del testamento resulte que la voluntad del testador o testadores fue otra, no surtirán efecto las disposiciones correspectivas entre los cónyuges, ni las liberalidades concedidas en testamento por uno de ellos al otro, si al fallecer aquél estuviera declarada judicialmente la nulidad del matrimonio, decretado el divorcio o la separación o se encontraran en trámite, a instancia de uno o ambos cónyuges, los procedimientos dirigidos a ese fin”*.

Hau da, ez da testamentu osoa ezerezean geratuko (klausula korrespektibo edo liberalitateak bakarrik), eta gainera ezkontideek haien kabuz kontrakoa erabakitzeko ahala izango dute⁴².

5.2.2. Galizia

Galiziako legediak Aragoiko legediaren logika berberak jarraitzen ditu, eta xehetasun batzuk salbu, araudia berdina da. Hala zehazten du ekainaren 14ko 2/2006 Galiziako Zuzenbide Zibilaren Legeak (hemendik aurrera GZZL).

Galizian ere, bakoitzak korrespektiboak ez diren, hau da, haren ondasunei bakarrik eragiten dieten xedapenak unilateralki ezeztatu edo aldatu ditzake (unilateralki, testamentugilekidea bizirik dagoela edo ez). Testaentugilekideetako batek (bestea bizirik dagoela) klausula korrespektibo bat ezeztatzen badu, beste testamentugilekidearen pareko

⁴¹ Merino Hernández, José Luis, *“Efectos de la nulidad, divorcio y separación”*. *Comentarios al código civil y compilaciones forales*, Manuel Albadalejo, Edersa, 2005, 34. Tomoko, lehen bolumeneko, bigarren liburuko, bigarren tituluko hirugarren kapitulua.

⁴² Bellod Fernández de Palencia, Elena, *Código del Derecho Foral de Aragón, Concordancias, Doctrina y Jurisprudencia*, Delgado Echeverría, Jesus, Aragoiko Gobernua, 2015, 636. Or.

klausula korrespektiboa ere ezeztatuko da. Testamentugilekideetako bat hiltzen denean, klausula horiek (korrespektiboak) aldezinak bihurtzen dira, kasu konkretu batzuetan salbu (GZZL-ko 190.Art.-a, 191.Art.-a eta 192.Art.-a).

Ez da ezartzen testamentu bateko klausularen ezeztatze unilateralak, beste klausula guztiak eragingabe bihurtzen dituenik, beraz (aztertzen ari garen 27.3. Art.-ari jarraiki).

Bestetik, ezkontzen deuseztatze eta dibortzioak, eta izatezko bikoteen hausturak ere ez dira testamentu mankomunatuak automatikoki eragingabe bihurtzeko arrazoitzat hartzen.

Dena dela, ildo horretatik dihardu GZZL-ko 208.Art.-ak. Aurretik Aragoiko legean aztertutako 438. Art.-aren berbera da. Esan bezala, ezkontza deuzestasuna ez da testamentu mankomunatuaren ezeztatze automatikoa aktibatze arrazoi gisa konfiguratzeko, klausula korrespektiboetan baino ez du eragina, eta testamentugilekideek kontrakoa erabakitze abagunea uzten du.

5.2.3. Nafarroa

Nafarroan, ez da aldaketari buruz hitz egiten. Egun indarrean dagoen Nafarroako Zuzenbide Zibil Foralaren Konpilazioan (martxoaren 1eko 1/1973 Legea – hemendik aurrera NZZFK), 201.legeak arautzen du testamentu mankomunatuaren ezeztatzea.

Hala dio: *“Egile guztiak bizirik daudela, ermandadeko testamentua ezeztatu ahal izanen dute: 1. Horiek guztiek batera 2. Horietatik edonork, bere kabuz; kasu horretan, ezeztapenak ez du ondorerik izanen, gainerakoek horren berri izan dutela sinesgarriro agerrarazi arte. (...) Edozein kasutan ere, ezeztapenak eraginik gabe utziko ditu testamentuan jasotako xedapen guztiguztiak, horretan bestelakoa ezarri denean izan ezik (...)”*.

Artikulu horren azken aurreko paragrafoak, EZZL-ko 27.3. Art.-arekin baliokidea den araua ezartzen du. Hala, Nafarroan ere, klausula bakarra ezeztatzeak, beste klausula guztien ezeztapena ekarriko du, testamentuan kontrakorik erabaki ezean. Azpimarratzekoa, hala ere, Nafarroako legelariak testatzaileei efektu hori gerta ez dadin erabakitze ahalmena eman diela. EZZL-n ez da horrelakorik xedatzen.

Horrez gain, EZZL-ko 28.3. Art.-arekin baliokidea den 200.legea aurki dezakegu Nafarroako konpilazioan. Hala dio: *“Ermandadeko testamentua bere xedapen guztietan eraginik gabeko bilakatuko da honako kasu hauetan:*

1. Ezkontideek egin badute, are ezkondu baino lehen eta bikote egonkorra zirelarik nahiz ez zirelarik, legezko banantze, dibortzio edo deuseztasun kasuan. Demanda judizialaren aurkezpen hutsak eragingabetasuna sorraraziko du, ondoren adiskidetu ezean.

2. Bikote egonkorra osatzen duten bi pertsonak egin badute, are bikote egonkorra osatu baino lehen egin dutenean ere, bikote egonkorra azkentzen bada kideak bizirik daudela; azkentze hori modu fede-emailean agertu beharko da, eta azkentzearen arrazoia ezin da izan bikotekide horien arteko geroagoko ezkontza, kasu horretan aurreko apartatuak xedatutakoa aplikatuko bailitzateke”.

Hau da, lan honen funtsezko helburu den EZZZL-ko 27.3 eta 28.3. Artikuluaren baliokideak aurki ditzakegu NZZFK-n.

5.2.4. Alemaniako araudiari aipamena

Interesgarria da, EZZZL-ren arabera ezkontzaren hausturak dakarren efektua aztertzeko asmotan, Alemanian gertatzen den egoera zein den ikustea.

Alemaniako Kode Zibila BGB izenez ezaguna da. BGB-ko 2268. §- ak zehazten du, testamentu mankomunatu bat eduki osoan eraginik gabe geratuko dela, ezkontza kausatzailea hil aurretik desegin bazen, salbu, kausatzaile denak testamentuko xedapen horiek berdin berdin jarriko balitu (nahiz eta ezkontza desegin)⁴³.

⁴³ *García-Granero Fernández, Jacinto, Del testamento de hermandad. In M. Albadalejo Comentarios al código civil y compilaciones forales (Manuel Albadalejok zuzendua), Edersa, 2005, 18. Tomoko, lehen bolumeneko, bigarren liburuko, bostgarren tituluko, bostgarren kapitulua. Autoreak Alemaniako erregulazioari buruz hitz egitean, Kipp autoreak ezarritako doktrina plazaratzen du: “Puesto que el testamento mancomunado tan sólo puede ser otorgado por cónyuges, resulta que su **ineficacia** depende de la existencia del matrimonio en el tiempo de su otorgamiento, tanto si los testadores lo quieren como si no. Por tanto, si el matrimonio es nulo, todo el contenido del testamento mancomunado es ineficaz, sin que los testadores lo puedan remediar. Lo mismo rige, naturalmente, si el matrimonio era anulable o es anulado [...]. Si el matrimonio se disuelve antes de la muerte de uno de los cónyuges o si el que ha premuerto tenía derecho, en el tiempo anterior a su muerte, a plantear la acción de divorcio, y hubiera ejercitado tal acción o la de separación por culpa del otro cónyuge, el testamento mancomunado*

Alemanian, beraz, arauak oinarri zentzuduna dauka: Alemanian, ezkontideen artean baino ezingo litzateke erabili testamentu mankomunatuaren figura. Horrek EZZL-ak arautzen duen egoeratik erabat aldentzen du, funtsean, berdina ezartzen duen Alemaniako araua.

Badirudi, logikoa dela ezkontza ezinbestekoa den egoeran, hura apurtzen bada, testamentua ere bertan behera geratzea. Horrek, aurrerago ikusiko dugun moduan, egun Euskadin aplikagarri den 28.3. arauaren jatorria ulertzeko balioko digu.

5.3. DOKTRINA. EZZL-KO 27.3. ETA 28.3. ARTIKULUEN ARAZOAK.

Testamentu mankomunatuari dagozkien araudi desberdinak aztertuta, eta konparaketak ikusita, 27.3. artikulua eta 28.3. artikulua edukei dagozkien azterketa doktrinala egin behar dugu orain. Izan dira, bai artikulua eta baita Nafarroan antzekoak diren artikulua, zuzenbide zibilean adituak direnen kritiken erdigunean. Hala, iritzi desberdinak plazaratuko ditut, haien zentzua edo logika ulertzeko.

5.3.1. 27.3. Artikulua buruz

Lehenengo, 27.3. Art.-ari dagokion doktrina aztertuko dut. Esan bezala, testamentu mankomunatuak aldatzetik edo ezeztatzetik eratortzen den xedapen guztien eragingabetasun automatikoa da artikulua horren ondorio zuzen eta nagusia. Hau da, erraz esanda, testamentugilekideetako batek unilateralki klausula bat aldatzeak edo ezeztatzeak, testamentu osoaren eragingabetasun automatikoa sortuko du.

Badirudi EZZL-ak egindako arauketa neurritz gainera dela. Testamentugilekideetako batek unilateralki hari dagozkion xedapenak aldatu edo ezeztatzeak, xedapen edo klausula horiekiko korrespektiboak diren horietan izan behar du eragina, eta ez, gertatzen den erara, testamentu osoan. Izan ere, beste testamentugilekideari dagozkion klausulak (eta beraz, aldaketa edo ezeztatzea aurrera eraman duenarekin zerikusirik ez daukan

se presume que es ineficaz en todo su contenido, y no sólo hasta donde los cónyuges se hayan designado mutuamente; pero son eficaces las disposiciones, respecto a las cuales hayan de admitirse que también las habría adoptado el testador a pesar de lo ocurrido”.

xedapen multzoa), eta baita norberaren klausula eskusiboak eragingabe uztea (ope legis eta halabeharrez), errebokazio edo aldaketa egiten duenaren nahia gainditzen duen ondorioa izan daiteke askotan⁴⁴.

Hala ere, izan dira, arauak ezartzen duena defendatu izan dutenak. Autore batzuen arabera, testamentua mankomunatu bada, egileen arteko konfidantzan oinarritzen da eta konfidantza hori apurtuta, ez luke zentzurik izango⁴⁵.

Azkenik, bi galdera uzten ditu airean:

Posible al da, orduan, testamentu mankomunatuaren ezeztatze edo aldaketa partziala? Eta nola egin, testamentuko klausula guztiak eragingabe bilakatuko badira, testamentu horren klausula baten aldaketa unilaterala bat?

Argi ikusten da, alde batetik, badagoela artikulua arautu nahi duen eta arautzen duen materiaren arteko kontraesana. Izan ere, nahiz eta 27.Art.-aren titularen esanetan aldaketak eta ezeztatzeak arautzen diren, haren azken parrafoak sortzen dituen efektuei erreparatuta, testamentu mankomunatuaren ezeztatze unilaterala eta totalak baino ez dira aurreikusten.

Gainera, ez da aurreikusten testamentugilekideek testamentuan kontrakoa xedatzeko aukera espresurik (Nafarroan edo Aragoi gertatzen den modura –eta izan daiteke hori Nafarroako doktrina mailan arauak eztabaida gutxiago sortu izanaren arrazoiak-). Azken finean, aukera hori zabalik uzteak, ematen die xedatzaile direnei efektu global horrek sortzen dituen eta nahi ez diren efektuak sahisteko bidea.

Dena dela, eta kontraesanak kontraesan, euskal zuzenbide zibilaren esanetara inefikaz bilakatuko dira klausula guztiak aldatze edo ezeztatze unilaterala ematen bada, nahiz eta aldaketa edo ezeztatze hori klausula konkretuetara mugatu.

⁴⁴ Ideia hori defendatzen dute, GIL RODRIGUEZ, Jacinto, *Manual de Derecho...* cit. 337-338 Orr.-etan arauaren inguruan “*debería haberse limitado a acotar la repercusión dentro del círculo de la corresponsabilidad*” esanez eta efektua “*ultraeficacia corrosiva de todo su diseño mortis causa*” gisa definituz, BARRUETABEÑA ZENEKORTA, Maite *El testamento mancomunado...* cit. 378. Orr, “*Las consecuencias (...) son desmedidas. Por ello, entiendo más adecuado que los efectos de la revocación unilateral en vida de ambos causantes sean más selectivos, para lo cual, la distinción según haya o no decisiones corresponsivas es una posible solución*”.

⁴⁵ CELAYA IBARRA, Adrián, *Comentarios al Código...* cit. 212. Or.

Zergaitik hartu du legelari euskaldunak muturreko konponbidea ezartzeko hautua? Izan daiteke, akaso, errebokazio edo aldaketa unilaterala egiteak testamentugilekideen arteko hasierako adostasuna hautsi dezakeela erabili izana arrazoitzat. Eta, biek batera eginiko aldaketak edo ezeztatzeak, ez duelako aztertzen ari garen artikulua sortzen duen efektu nabarmen hori sortuko (EZZL-ko 26. Art.-a). Hala ulertuta, eta testamentugilekideen arteko desadostasuna dagoela auresuposatuta, zentzu gehiago izan dezake testamentuaren inefikazia totalaren hautaketak, arazoak sahiestuz.

Dena dela, ez du horrek, arautu nahi denaren (edo teoriar arautzen denaren) eta praktikan arautzen denaren arteko kontraesana gainditzen.

5.3.2. 28.3. Artikuluari buruz

Bestetik, 28.3. Art.-ak sortzen duen kritika doktrinala jorratuko dugu orain. Gogoratzearren, arauak dio, testamentua egin ostean ezkontzaren deuseztasun sententziak, edo banaketa edo dibortzio sententziek (eta baita izatezko bikoteen hausturek) testamentua inefikaz bilakatuko dutela, adingabeko edo desgaitasuna duen seme-alaba baten onuran egindako klausula korrespektiboak salbu. Bai EAE-n eta baita Nafarroan ere (aurretik aipatutako eta baliokidea den konpilazioko araua), kontrako iritziak sortu izan dituen araua izan da.

Badauka xedapen horrek, historikoki testamentu mankomunatuak izan duen izaeran (ezkontideen artean erabiltzen zela) oinarria (nahiz eta egun testamentugilekideen bizikidetzat ez den testamentu mankomunatu egiteko baldintzat ezartzen). Hau da, testamentu mankomunatuak historikoki izan duen, baina egun mantentzen ez den (teorian behintzat), kontzepzioaren ondorio den arauaren aurrean aurkitzen gara. Kontutan izan behar dugu, gainera, zein den 28. Artikuluaren izenburua: “28. artikulua.– Ezeztapen edo aldaketa testamentugilekidea hil ondoren”.

Arauaren kokapena akats handia da oso⁴⁶. Izan ere, testamentugilekidea hil denerako ezartzen den artikuluan kokatzeak zalantza asko sortzen ditu. Ez al dago, iada,

⁴⁶ TENA PIAZUELO, Isaac, *La sucesión por testamento...* cit. 78.Or.-an 28.3. Art.-a “*contraste brusco*” gisa definitzen du.

testamentugilekidea den (eta era berean ezkontideetako bat izango zena) hura hil izanagatik, ezkontza disolbatzera kondenatua? Eta, testamentua eragingabea izango da, baina zeintzuk dira horren benetako efektuak, jakinda beste testamentugilekidea hil denetik berori efektuak sortzen hasia dela (hau da, testamentuan ezarriaren arabera haren oinordetza hasia egongo dela)? Gainera, zergaitik ezartzen da artikulua izenburu gisara “ezeztapen edo aldaketa” kontzeptua, legez inposatzen den eragingabetasun baten aurrean bagaude?⁴⁷

Hala ere, badirudi praktikan erabilera handia izango duen artikulua izango dela (bikoteen –ezkontzazkoak edo ez- krisiak gora egiten ari diren heinean).

Nafarroako legeari ere (EZZL-ren antzekoa) kritikatu izan zaio aipatu ditugun arazoak direla medio.⁴⁸ Horrez gain, Nafar Zuzenbide Zibilean aurrekaririk ez zeukan araua zen (Aragoiko konpilazioko xedapen zaharraren kopia dela dirudi)⁴⁹.

Aragoien, arau hura indarrean zegoenean, testamentu mankomunatuak senar-emazteen artean baino ez ziren onartzen (ezkontza zen testamentu mankomunatuak baliodunak izateko baldintza). Beraz, zentzuduna izan zitekeen horrelako ondorioak ekarriko zituen araua ezartzea. Egun, baldintza hori ezeztatua dagoela, aurrerago aztertu dugun bezala, ez da Aragoien indarrean dagoen halako xedapenik existitzen. Badirudi hori izan zitekeela Aragoiko arau historiko horren joera naturala, testamentu mankomunatuaren subjektuen esparrua zabaldu ostean. Baina, ikusi dugu; ez da halakorik gertatu Euskadin eta Nafarroan.

Aragoiko araua kopiatzeak, eta Nafarroan historikoki arau parekiderik ez izateak, aplikazioan arazoak sortu ditzake. Kontutan eduki behar dugu, Aragoiko araua (indarrean zegoela) testamentu guztietan aplikagarri zela, ezinbestekoa zelako ezkontide izatea

⁴⁷ GIL RODRIGUEZ, Jacinto, *Manual de Derecho...* cit. 333-334. Orr

⁴⁸ García-Granero Fernández, Jacinto, *Del testamento...* cit. aipatzen zuenez, “*La reforma parcial del Fuero Nuevo, realizada por la Ley del Parlamento Foral 5/1987, de 1 abril, afectó a la ordenación del testamento de hermandad sólo en cuanto a la ley 201, a la que fue añadido un nuevo párrafo antepuesto al texto anterior, y que trata de la ineficacia sobrevinida del testamento de hermandad entre cónyuges a consecuencia de la posterior sentencia de nulidad del matrimonio o de divorcio o separación. Baste decir aquí—pues la cuestión es detenidamente examinada en el comentario a tal ley—que la modificación introducida constituye un clarísimo ejemplo de impreparación e incompetencia del legislador*”

⁴⁹ García-Granero Fernández, Jacinto, bertan.

testamentu mankomunatua posible izan zedin. Nafarroan, berriz, edozein erlazio duten pertsona bik testamentu mankomunatua egin dezakete. Beraz, horiek ezkonduko balira, ezkontza testamentu mankomunatua mantentzeko baldintza bilakatuko zen.

Bai EAE-ko autoreek eta baita Nafarroako autoreek kritikatu dituzten xedapenak izan dira. Ikusi dugu, kontrari jartzeko argudio asko daudela, eta gutxi, bestetik, araua babesteko zentzudunak diruditenak.

Nire ustez, EZZL-ko 28.3. Artikuluak izan dezakeen oinarri bakarra, historikoki testamentu mankomunatuek izan duten senar-emazte izatearen baldintzan aurkitzen da. Izan ere, hala sortu ziren, hein handi batean, testamentuok. Hala, legegileak, ezkontideen arteko testamentu mankomunatuaren kasuan, auresuposatzen du senar-emazte direlako egin dutela, eta ez zutela egingo, haien arteko erlazio konkretu hori existituko ez balitz (eta beraz, testamentua mantentzeak zentzua galduko lukela dibortzio edo banaketa unean). Beraz, joera historiko hori moduren batean mantentzeko idatzitako xedapena dela esango nuke. Azken finean legegileak testamentugilekideak ezkontzen direnean eta hermandadeko instrumentua burutzen dutenean, testamentua haien arteko konfidantzaren oinarritzen dela ulertzen du (eta ezkontzaren ezeztatzeak, konfidantza hori apurtzen duela).

Baina, inongo erlaziorik ez duten pertsona bik testamentu mankomunatua egin badezakete, zergaitik ezarri arau hori? Gainera, testamentua egin eta gero testamentugilekideak ezkonduko balira, etorkizunean testamentua mantentzeko baldintza bilakatuko zen ezkontza bera⁵⁰.

Dena dela, ezeztatze eta aldaketa unilateralen atalean ezartzeak ez dauka zentzurik. Alor hau testamentu mankomunatuaren inefikazia arrazoi gisa definituko nuke nik.

⁵⁰ Azken ideia horren inguruan, aipagarri da Nafarroako JAN-ak emandako 2020ko apirilaren 23ko 2/2020 sententzia. Testamentugilekideak 1992an (ez zeuden ezkondu baina batera bizi ziren) egin zuen testamentu mankomunatua. Ondoren 1998an ezkondu ziren. 2012an, berriz, bizikidetzaren apurta zen. Azkenik, 2013ko azaroaren 15ean dibortziatu ziren. Nahiz eta testamentua ezkondu aurretik eman, eta geroago ezkondu, Nafarroako JAN-aren arabera, ondoren datorren dibortzioak, eman den testamentu osoa inefikaz bilakatzeko ondorioa ekarriko du.

6. ONDORIOAK

Interesgarria da oso, Espainian zuzenbide zibilaren alorrean gertatzen dena. Zuzenbide komuna oinarri hartuta, bestelako zuzenbide autonomikoen existentziak, halako konplexutasun baina era berean bereizgarri polita ematen dio aztertzen dugun alorrari. Zer esan, gainera, historikoki euskaldunok izan ditugun geure arauak mantentzeak ematen duen nortasun harrotasunaz. Bada, historikoki euskal lurraldean erabilia izan den testamentu mankomunatuaren figurak erregulazio desberdinak izan baditu lurralde historikoetan, hori bukatu egin zen 2015ean.

Mota horretako testamentuak trataera desberdina izan dute Espainiako araudi desberdinetan. Begi-bistakoa den kontua da hori, kode zibilaren debekua oinarritzat hartuz. Hala, normala denez, desberdin arautu dira alor ezberdinak Aragoi, Galizian, EAE-n eta Nafarroan.

Arauketa desberdinek, nola ez, arrazoiketa desberdinak dituzte atzean. Hau da, araua egiten duen legegariaren iritzi edo herrialde konkretuko ohiturak etab., eragina izango dute erabakitzeke orduan. Eta hori gertatu da, testamentu mankomunatuaren ezeztatze eta aldaketan alorrean.

Hala, ikusi dugu, eta egin ditugu konparaketak, leku bakoitzean egin diren arauketei buruz. Nola ez, lanaren hizpide izan diren 27.3. Art.-a eta 28.3. Art.-a eta haren baliokide izan zitezkeenak aztertu ditugu. Gainera, ikusi dugu, baliokide diren arauak existitu izan zirela Aragoien adibidez (eta egun malgutu edo desagertu direnak – dibortzioen ondoriozko inefiakziari buruz ari naiz -).

Bada, argi dago, euskal legeko artikuluko horiek badaukatela zer kritikan jarri. Ez dira xedapen horiek espero zitezkeenak behintzat, euskal legeria zibila unifikatzen zuen lege batean. Ikusi ditugu kritikak eta saiatu gara, ahal izan dudana neurrian, horien izatearen zentzua bilatzen.

Azpimarratzekoa, baita, Nafarroako eta EAE-ko legeko arauen antzekotasunak. Bietan aurreikusten dira ondorio berdinak dakartzaten arauok. Historikoki erlazionatuta dauden lurraldeak direlako izan daitekkelakoan nago.

Euskadiko auzitegien jurisprudenzia falta ere somatu dut, gaiari dagokionez. Lege berria izatearen ondorio edo. Dena dela, ikusi eta adi egon beharko da, hurrengo urteetan JAN-aren eskutik aztertzen diren auzietan ezartzen den jurisprudenzia zein den ikusteko. Bilatuko zaie lekua, akaso, testamentugilekide biak bizirik daudenean egiten diren aldaketa partzialei? Ikusiko da.

7. BIBLIOGRAFIA

LIBURUAK; LANAK

_Barruetabeña Zenekorta, M (2010). *El testamento mancomunado o de hermandad en el derecho civil del país vasco* [Doktorengo tesia]. Euskal Herriko Unibertsitatea. <https://www.educacion.gob.es/teseo/imprimirFicheroTesis.do?idFichero=NYave49zBv4%3D>

CELAYA IBARRA, A. (1997), “Comentarios al Código Civil y Compilaciones Forales, dirigidos por Manuel Albadalejo y Silvia Díaz Alabart, tomo XXVI, Ley sobre el Derecho Civil Foral del País Vasco”. Edersa.

Delgado Echeverría, J. (2015). *Código del derecho de Aragón: Concordancias, Doctrina y Jurisprudencia*. Gobierno de Aragón: departamento de Presidencia y Justicia. <https://estatuto.aragon.es/sites/default/files/derechoForalAragon.pdf>

Gil Rodríguez, J. eta Galicia Aizpurua, G. (2016), “Manual de derecho civil vasco”. Atelier.

Gil Rodríguez, J. (2011). El testamento vasco, en perspectiva de unificación. In Francisco de Paula Blasco Gascó, Mario Enrique Clemente Meoro, Francisco Javier Orduña Moreno, Lorenzo Prats Albentosa, Rafael Verdura Server, Vicente Luis Montés Penadés (Ed.) “*Estudios jurídicos en homenaje a Vicente L. Montés Penadés*. (1209-1237). Tirant lo Blanch. <https://www.ehu.eus/documents/25847330/26035499/El+testamento+mancomunado+vasco%2C.pdf/69b0356e-7f01-a7a5-84e3-20df3be10c42?t=1384172582000>

Iriarte Ángel, B. (2016). La actualización del derecho civil vasco en el año 2015: una visión desde la práctica. *Iura vasconiae: revista de derecho histórico y autonómico de Vasconia*, (13), 323-340. <https://dialnet.unirioja.es/descarga/articulo/6028564.pdf>

Lalinde Abadía, J. (1962). La sucesión filial en el derecho visigodo. *Anuario de historia del derecho español*, (32), 113-130. <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=2050289>

López Suárez M.A. (2002). *El testamento mancomunado en la ley de derecho civil de Galicia*. (Doktorego tesia). Coruñaiko unibertsitatea, zuzenbide fakultatea, Espainia. [file:///C:/Users/ANDER/Downloads/LopezSuarez MarcosAntonio TD 2002%20\(1\).pdf](file:///C:/Users/ANDER/Downloads/LopezSuarez%20MarcosAntonio%20TD%202002%20(1).pdf)

Monfil Garin, E. (2017). El testamento mancomunado en los derechos forales de España. (Gradu amaierako lana). Zaragozako unibertsitateko zuzenbide fakultatea, Espainia. <https://zaguan.unizar.es/record/65107/files/TAZ-TFG-2017-2741.pdf>

Merino Hernández, J.L. (2005). Efectos de la nulidad, divorcio y separación. In M. Albadalejo (ed.) *Comentarios al código civil y compilaciones forales (dirigidos por Manuel Albadalejo)*. (34. Tomoko, lehen bolumeneko, bigarren liburuko, bigarren tituluko hirugarren kapitulua) <https://vlex.es/vid/efectos-nulidad-divorcio-separacion-261196>

Música Brunet, J.I. (1997). Guipúzcoa y sus fueros. *Boletín de estudios históricos sobre San Sebastián*, (31), 731-744. <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=9092409>

García-Granero Fernández, J. (2005). Del testamento de hermandad. In M. Albadalejo (ed.) *Comentarios al código civil y compilaciones forales (dirigidos por Manuel Albadalejo)*. (18. Tomoko, lehen bolumeneko, bigarren liburuko, bostgarren tituluko, bostgarren kapitulua) <https://app.vlex.com/##sources/695/chapter:8758/chapter:8763>

Espiñeira Soto I. (2013ko ekainaren 17a). *Reflexiones tras una lectura en Compostela. Estudio práctico sobre las similtudes y diferencias entre el testamento mancomunado alemán y el magomunado gallego*. [Mezua blog batean]. Azken kontsulta: 2023ko ekainaren 2an:

<https://www.notariosyregistradores.com/LEYESEXTRANJERAS/ARTICULOS/2013-testamento-mancomunado-gallego-aleman.htm>

Lalinde Abadía, J. (1962). La sucesión filial en el derecho visigodo. *Anuario de historia del derecho español*, (32), 113-130.
<https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=2050289>

López Suárez M.A. (2002). *El testamento mancomunado en la ley de derecho civil de Galicia*. (Doktorego tesia). Coruña: unibertsitatea, zuzenbide fakultatea, Espainia.
[file:///C:/Users/ANDER/Downloads/LopezSuarez_MarcosAntonio_TD_2002%20\(1\).pdf](file:///C:/Users/ANDER/Downloads/LopezSuarez_MarcosAntonio_TD_2002%20(1).pdf)

Sanchez-Rubio García, A. (2012). El testamento mancomunado Aragonés. *Revista de derecho civil Aragónes*, (18), 121-161. <https://ifc.dpz.es/recursos/publicaciones/33/33/03sanchezrubio.pdf>

Tena Piazuelo, I. (2019). La sucesión por testamento mancomunado o de hermandade n el nuevo derecho civil vasco. *Revista de derecho civil*, 6 (4), 45-88.
<https://www.nreg.es/ojs/index.php/RDC/article/view/465/374>

LEGEAK

Espainiako araubidea:

Kode zibila argitaratzen duen 1889ko uztailaren 24ko errege dekretua. (EAO 206 zk., 1889ko uztailaren 25ekoa) <https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-1889-4763>

EAE-ko araudia:

Euskadiko zuzenbide zibil foralaren uztailaren 1eko 3/1992 Legea. (EAO 39. zk., 2012ko otsailaren 15ekoa) <https://www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-2012-2257>

Euskal zuzenbide zibilari buruzko ekainaren 25eko 5/2015 legea. (EAO 124.zk., 2015eko uztailaren 3koa) <https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-2015-8273>

Beste autonomia erkidegoetako araubidea:

Aragoiko Lege Zibilen Testu Bategina onartzen duen 1/2011 Legegintzako Dekretua, martxoaren 22koa, Aragoiko Gobernuarena (EAO 67. zk., 2011ko martxoaren 29koa) <https://www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOA-d-2011-90007>

Aragoiko zuzenbide zibilaren konpilazioari buruzko 1967ko, apirilaren 8ko 15/1967 legea (EAO 86.zk. 1967ko apirilaren 11koa) <https://www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-1967-5590>

Nafarroako Foru Berriaren edo Nafarroako zuzenbide zibilaren konpilazioa aldatzen eta berritzen duen 21/2019 Legea, apirilaren 4koa (EAO 137. zk., 2019ko ekainaren 8koa) <https://acortartu.link/67www>

Galiziako zuzenbide zibilari buruzko ekainaren 14ko 2/2006 Legea (EAO 124.zk. 2006ko ekainaren 29koa) <https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-2006-14563>

JURISPRUDENTZIA

Auzitegi Gorenaren Epaia: AGE 1984ko otsailaren 13koa

PAE Nafarroa 2020ko apirilaren 23koa (2/2020)